

XXII. JAGON JARDUNALDIAREN KRONIKA EDO ARABA, EUSKARAZ BIDEA EGITEN

Izenburu horrekin burutu du Euskaltzaindiak XXII. Jagon Jardunaldia Gasteizko Montehermoso Kulturunean-Euskararen Etxean, azaroaren 17an.

Azken mendeetan atzerakada izan ondoren, nabarmen hobera egin du euskararen joerak Araban azken hamarkadetan. Jagon Jardunaldian aldaketa horren dimentsioa eta ezaugarriak izan ziren hizpide, Arabako ordezkariak herritar, profesional eta instituzional zabal baten eskutik. Lortutakoak eta bidean izandako oztopoak aztertuz, etorkizun oparoa lortzeko aukerez hausnartu zuten parte hartzaileek, nork bere eskarmentutik abiatuz. Jardunaldia harrera agurrekin abiatu zen. Zehatzago, ordezkariak instituzionala Arabako Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren eta Gasteizko Udaleko Euskara zinegotziaren bitartez osatu zen. Euskaltzaindiaren izenean hurrengoak aritu ziren: Andres Urrutia, euskaltzainburua, Sagrario Aleman, Sustapen batzordeko buruak eta Roberto González de Viñaspre, Arabako ordezkaria. Beste lau saio burutu ziren goizean zehar: 1) Arabako egoeraren eta bilakae-raren irakurketa datuen argira; 2) Erakundeetako euskara teknikarien egungo lan-ildo herritzaileenak eta aurrera begirako aukerak; 3) Hainbat egileren ahaleginak Arabako euskaldunak



Igone Martinez de Luna, Andres Urrutia, Iñaki Prusilla, Sagrario Aleman

aktibatzen; 4) Euskarazko hedabideen garrantzia, Araban. Egoera eta aurrera begirako aukerak. Entzuleek aukera izan zuten hizlariak esandakoaren haritik beren zalantzak edota ikuspuntuak agerian jartzeko. Guztien ekarpenekin urrats bat gehiago egiteko aukera zabaltzea zen jardunaldiaren asmoa, Araban euskararen normalizazioa errealitatea izan dadin. Jardunaldian esandakoen laburpen subjektiboa eta, nahigabe bada ere, alboratua eskaintzen da jarraian. Bestela esanda, le- rrook idatzi duenaren ustez, mami edo indar handien dauzka- ten ideiak baino ez dira aipatuko. Egilearen sormenak ere bere marka utziko du, seguru asko.

ZENBAIT DATU BAIKOR


“Gure ingurua uste duguna baino euskaldunagoa da, bai- na horretaz jabetu behar gara euskaldunak, kontzientzia har-”

tu bebar dugu eta euskaraz bizitzeko ditugun aukerak baliatu bebar ditugu.” Asier Etxenikeren hitzak ziren, Araban kalera-tzen den ALEA euskarazko aldizkariari esanak. Ideia hori erabat berretsi zen Euskaltzaindiak, Gasteizen, egin berri duen XXII. Jagon Jardunaldian. Hurrengo datuek islatzen dute baikortasun horren funtsa.

Euskarazko Gaitasuna


Jagon Jardunaldiaren hasieran aurkeztu ziren Arabari buruz hainbat datu eta estatistika. Horietako batzuk VI. Inkesta Soziolinguistikoak 2016an hartuak ziren, 16 urte edo gehiagoko biztanleriaren artean bilduta. Iturri horren arabera, 2,4 puntu igo da euskaldunen proportzioa Araban, 2011tik 2016ra bitartean (% 16,8tik % 19,2ra), eta 1,3 puntu (% 4,3tik % 5,6ra) igo da euskararen erabilera orokorra.

Handia ez bada ere, gaitasunean badago alde lurralde osoko eta bere hiriburuko emaitzen artean:



1. Irudia: Arabako eta Gasteizko Euskaldunak, Ia-Euskaldunak eta Erdaldunak (%tan), 2016an (VI. Inkesta Soziolinguistikoa, Eusko Jaurlaritzza)

Aldaketa, belaunaldi gazteenetan ari da gertatzen batez ere, eta 16-30 urte bitarteko lau arabarretik hiru euskaldunak dira. Areago, gogoan izan behar da inkesta horrek ez dituela kontuan hartzen euskaldunenak diren adin-multzoak: haur eta nerabeenak. Beraz, lurralde horretako biztanleria osoa hartuta, euskarazko gaitasuna eta erabilera altuagoak izango dira esandakoak baino. Hori ikusten da EUSTATen *Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak* datu-iturri hartuta, Araban 1981ean zegoen euskaldunen proportzioa (% 3,9) ia halako sei izatera (% 23,9) iritsi zen 2011n:




2. Irudia: Arabako Euskaldunak, Ia-Euskaldunak eta Erdaldunak (%tan), 1981ean eta 2011n (Biztanleria Zentsua, Eustat)

Euskarazko gaitasun erlatiboa

Bi hizkuntza ofizialetan ondo moldatzen diren arabar euskaldunei hots, elebidunei errazago zeinetan egiten duten galdetuta, nabarmen altuagoa da (% 74,2) *elebidun erdaldun* gisa izendatu ohi direnen kopurua; alegia, gaztelaniaz hobeto moldatzen direnenak. Bi hizkuntzatan berdin moldatzen direnak % 19,2, edo *elebidun orekatuak*. Azkenik, elkarriketa-

tuen % 6,2k dio euskaraz hobeto moldatzen dela gaztelaniaz baino, edo *elebidun euskaldunak*.




3. Irudia: Arabako euskaldunen gaitasun erlatiboa (%tan)
(Arabarren euskararen ezagutza, erabilera eta iritzia 2015, Aztiker)

Hizkuntza-erabilera

Arabako etxeetan hizkuntza-erabilerak nabarmen aldatu da 1991tik¹ 2016ra bitartean, betiere Eustatek emandako informazioaren arabera. Batetik, % 1etik % 3,9ra igaro da euskara hutsa eta % 2,8tik 3,9ra euskara eta gaztelania, bi-biak, baliatze-ko jarduna. Horren ondorioz, euskararen presentzia soilik edo gaztelaniarekin etxeetan % 4,9tik % 6,7ra hazi da, hogei urteko epean. Bestetik, ezin da ahaztu beste hizkuntzen pisuak ere hazkunde aipagarria erakutsi duela: % 0,4 izatetik % 2,9 izatera, 1991 eta 2011 bitartean.


¹ Gaitasunaz ez bezala, erabileraz eskaintzen diren daturik zaharrenak 1991koak dira.



4. Irudia: Arabako etxeetako hizkuntza erabilera (%tan), 1991ean eta 2011n (Biztanleria Zentsua, Eustat)

Adin guztiei erreparatzen dien VII. Kale Erabileraren Neurketak ere goranzko joera erakutsi duela azaldu zen jardunaldian. Horrela, 1989-2016 denbora tartean, Araban orain arte jasotako emaitzarik onenetara iritsi da azken neurketan: % 3,9koa 1989an eta % 4,6koa 2016an. Lurraldeko hiriburuan, Gasteizen, 1989ko kale-erabileran euskararen pisua % 2koa zen, eta 2016an % 3,7koa.

Hizkuntza-aniztasuna agerian gelditu zen Gasteizko kale-neurketan ere, non *beste hizkuntzen* erabilera, gutxigatik bada ere, euskararenari gailentzen zaion:




5. Irudia: Gasteizko bizkuntzen kale-erabilera (%tan), 2016n (VII. Kale Erabileraren Neurketa, Soziolinguistika Klusterra)

Iturriak iturri, euskarak kopuru apalak erakusten ditu inondik ere, baina bilakaera positiboa da kasu guztietan, gaitasunean zein erabileran. Joera positibo horrek isla izan zuen jarreraian etorri ziren jardunaldiko parte-hartzaileen planteamendu gehienetan.

Hizkuntza-jarrera

Arabarren gehiengoak (% 73,4) gizarte elebiduna nahiago du etorkizunerako; alegia, *euskara eta gaztelania, bi-biak, maila berdinean hitz egitea*. Arabarrak, euskaldun, elebidun hartzaile edo erdaldunak izan, kasu guzti-guztiengan nagusitzen da desira hori. Aipagarria da, bestalde, etorkizunera begira, euskaldunen artean ia heren batek (% 30,5) euskararen presentzia handiagoa nahiago lukeela, gaztelaniarena baino.



6. Irudia: Arabako bizkuntza-desira etorkizunerako, guztira eta biztun motaren arabera (%tan) (Arabarren euskararen ezagutza, erabilera eta iritzia 2015, Aztiker)

SAIOETATIK ATERATAKO ZIZKA-MIZKA

Bilakaera positiboa bultzatzen ari diren hainbat ekimen herriar, profesional eta instituzionaleko ordezkariak ahotsa izan zuten esandako jardunaldian. Prozesuaren argi-ilunak agerian jarri ziren, betiere oso tonu orekatu eta neurtuan.

Aurrera begirako sentsazioak, oro har, itxaropentsuak eta ilusionagarriak izan ziren. Hona hemen zenbait gako-idea, aurrera begirako asmoak bultzatzeko:

- Politika instituzionalak maila mikro-sozialean eragitea bilatu, arabarren harreman-sare euskaldunak sortuz eta indartuz.
- Foru Aldundiaren ohiko jardunean euskarak zeharlerroko planteamendu gisa bultzatu.
- Hizkuntza-politika diseinatu eta abian jartzeko, arlokako lan-taldeak sortu gizarte eragileekin.



Iñaki Martínez de Luna, Asier Etxenike, Olatz Altuna, Agurtzane Ortiz de Landaluze

- Euskararen normalizazioa generoen berdintasun eta aniztasun lan-ildo zein planetan txertatzea zehar-lerro gisa.
- Euskararen gaineko diskurtsoa aldatu beharra: euskaldunak Araban milaka batzuk izanda, ezin dugu geure burua *gutxiengo* gisa ikusi eta horrela agertzen jarraitu.
- Eragile guztien arteko koordinazioa eta lankidetzaren areagotzea, produktu, zerbitzu eta prozesuak (gizarte kapitala, azken buruan) hobetzeko asmoz.
- Erakargarriak eta euskararekiko pizgarriak diren erreferente sortu eta bultzatu.
- Herrigintza eta erakunde publikoen artean, ardurak zein konpromisoak partekatzea eta banatzea.
- Euskararen zeharkakotasuna bultzatzea, erakundeetan eta bestelako eragiletan.

- Helduen ikaskuntzaren garrantzia azpimarratu, 2015-2016 ikasturtean 5.616 ikaslek parte hartu baitzuten Araban.
- Euskarazko hedabideen eredua pentsatu eta aldatu beharra, gure komunitateak dituen dimentsioaren arabera eta interneteko berrikuntzaren arabera egokitzeko.
- Hedabideek eskaintzen duten euskararen arnasmune berri bat bihurtzeko aukera baliatu.
- Euskarazko kazetaritzaren prekaritatea, baliabide eta baldintza mugatuaren ondorioz profesionalen lana malabarista eta ekilibrista bihurtzen du.
- Euskal komunitatearen sarea osatu beharra, hedabideak horretan sakon txertatuz.
- Euskarazko hedabideen edukiak kalitatezkoak izan daitezzen zaindu, euskaraz izate hutsa ez da nahikotzat jo behar. Horrela baino ez dira prestigioatuko euskarazko hedabideak.



Roberto Gonzalez de Viñaspre, Igone Martinezde Luna, Andres Urrutia, Iñaki Prusilla, Sagrario Aleman

- Hedabideak informatzaile izatetik hezitzaile izatera pasa.
- Irratien lizentzien esleipenean euskarazko irratientzat kuota egokia bermatu beharra.

ARABA EUSKALDUNAGOA, BAINA...

Hizlarien pisuzko kezken eta kexen artetik bat gailendu zitzairen gainerakoei: Trebiño Konderriko testigantza gordina. Izan ere, Araba den edo izan beharko lukeen eskualde hori, *ez da Araba* euskarari dagokionez. Hala esan zuen Gutxisolo elkarteko Pilar Ansotegik, baieztapen hori argudio esanguratsu ugariz hornituz. Trebiñoko Konderrian egin diren urratsak miresgarriak dira, besteak beste Argantzun ikastola ireki izana. Emandako pausoak azaltzearekin batera, eskualde horretako ordezkaria beste ahots batzuen bozeramaile lana ere bete zuen. Larriak ez balira, *esperpentikotzat* jo genitzake euskara-



ren inguruko pasadizo batzuk; adibidez, guardia zibilak ikastola inguruetan kontrolak jartzea. Euskara *arriskutsua* omen Castilla-Leongo erkidegoan; baita erabat *atzerritarra* ere. Afrika edo Asiako hizkuntzak bezain arrotz, hain zuzen, ez baitute erkidego autonomikoaren ofizialtasunean zirrikitu txikienik ere. Bestalde, Arabako erakundeen eskumenetatik harago gelditzen dira; *ez da Araba* euskarari dagokionez. Horren guztiaren ondorioz, euskara bultzatzeko ahaleginetan, dena da zailtasun eta oztopo. Trebiñoko kontakizunak frankismo garaiko bizipen latzak gogorarazten zizkigun entzuleei. Daukaten helduleku ia bakarra herritarren babesa da. Hango egoerarekin alderatuta, Arabako (beste) lurraldeetan izandako aldaketa agerikoa da, baina aldeko haize instituzionalak Trebiñora iristeke daude oraindik. Bitartean esan beharko dugu Araba euskaldunagoa dela, bai, baina...

Iñaki Martínez de Luna